

FUNTSEZKO SOZIETATEAK - ALIANTZAK - ELKARTEAK

Alde batetik, BSR enpresarekin lan egingo dugu. Enpresa honek gure gimnasioa garbitzeaz arduratuko da, dena dirsiratsu egoteko. Egunero etorriko dira eta bi alditan garbituko dute, ixterakoan eta ireki baino lehen.




Beste aldetik, Harrobi eskolarekin lan egingo dugu baita ere. Harrobin, ariketa fisikoko eta aisialdiko kurtsuak edo zikloak emateaz arduratzen da. Ematen duten zikloenetariko bat, fisikoari buruz da. Beraz, hara joaten diren ikasleek gure gimnasia etorriko dira praktikak egitera eta praktikan jarriko dute bertan ikasitakoa.

Gainera, Ortus fitness enpresarekin harremana edukiko dugu ere. Enpresa honek, gure gimnasioko makinak mantentzeaz arduratuko da. Hau da, ekipoetan, makinetan eta instalazioetan gerta daitezkeen matxurak konpontzeaz eta prebenitzeaz arduratuko dira, haien funtzionamendu optimoa zaintzeko eta bermatzeko.



Movistar enpresarekin ere lan egingo dugu. Enpresa honekin hartu dugun tarifa, gimnasio osoan Wifi izateko aukera emateaz aparte, zaintza-kamerak ere eskeintzen dizkigute. Kamera hauekin lortu nahi duguna, batez ere, guk sortutako makina ez lapurtzea da.



Guretzat garrantzitsuak dira gai hauek ondo babestuta edukitzea enpresa hau aurrera ateratzeko. Gure bezeroak eroso eta seguru sentitzea entrenantzen ari diren bitartean funtsezkoa da, beraz, enpresa hauekin aliantzak ezartzea beharrezkoa ikusi dugu.